

# adi gure musikari, adi!

## musika ezkutatu zenekoa

---

Moskun gertatu zen, 1877an. Artean negua zen eta Bolshói teatroko orkestrak azken entseguan ziharduen. Biharamunean Tchaikovskyen Zisneen lakua estreinatzeakoa ziren.

Lehenengo aktotik bigarrenera ko tarteen isiltasuna egin zen eta non hasten den garrasika Nikolay Záitsev bilolinjole zaharra: “Musikak ihes egin du! Musikak ihes egin du!” Zuzendariak batuta altxatu eta berehala oihukatu zuen: “Itxi teatroko ate guztiak! Ez dadila hemendik irten!” Orduan asaldurak hartu zituen musikariak: “Zer egingo dugu orain?” zioen oboe joleak. “Musikak ez du gorputzik, ikusezina da... Nola aurkituko dugu?” kontrabaxuak. “Gorputzik ez du, baina badu ahotsa...”, zuzendariak pentsakor. “...beraz isil gaitezen eta entzun adi, ea gordelekua non duen!” Debekatu egin zuen tresnak jotzea, hitz egitea, eztlu egitea, begiak kliskatzea... Eta isiltasun ia absolutuan ekin zioten bilaketari: poltsikoetan, instrumentuen zorroetan, butaken azpian, gorengo patioetan... Baina musika inon agertzen ez.

Handik laster eszenatokia ziren denak berriz, etsita. “Hauxe duk gure akabua...” xuxurlatu zuen Nikolay Záitsevek beren tresna hotzei begira. “Kontzertua bertan behera utzi beharko dugu...” iragarri zuen zuzendariak. Eta isiltasuna egin zen.

Bat-batean kolpetxo saltari batzuk iritsi zitzaizkien teloiaren bestaldetik: ttap-ttap-ttap-ttap... “Entzuten al duzue hori?” zuzendariak. Hurbildu ziren gortina ostera eta hara non baletoko dantzari bat aurkitu zuten beroketak egiten; jauzi ermitikoak, tutuaren mugimenduak, arnasa... “Musika Odileren gorputza da!” deskubritu zuen arpa joleak, eta zisne beltz hura antzezten ari zen pasarte tarareatu zuen. Hantxe baitzegoen musika; Odileren gorputzean, arpa jolearen ezpainetan, Nikolay Záitseven bihotzean, Chaikovskyren eskuetan, Alma Mahlerren errailetan, Marianne Mozarten buruan, Clara Schumannen azalean, Fanny Mendelssohnen begietan, nigan, zugan...

Miren Amuriza

---

## y la música se escondió

---

Sucedió en Moscú, en 1877. Era invierno, último ensayo para la orquesta del teatro del Bolshói. Al día siguiente estrenaban El lago de los cisnes de Chaikovsky.

De repente, en el intervalo entre el primer y el segundo acto se hizo el silencio y Nikolay Záitsev, el viejo violinista, empezó a gritar: “¡La música ha huido! ¡La música ha huido!” El director dejó la batuta y se puso a vociferar: “¡Cierren todas las puertas! ¡Que no pueda salir!” Los músicos se pusieron nerviosos: “¿Qué vamos a hacer ahora?”, dijo el oboe. “La música es etérea, es invisible... ¿Cómo la encontraremos?”, añadió el contrabajo. “Es etérea, pero tiene voz”, dijo pensativo el director; “¡... silencio todo el mundo, y escuchad con atención, a ver si descubrimos dónde se esconde!” Prohibió tocar los instrumentos, hablar, toser, parpadear... Y en un silencio casi absoluto, empezaron a buscar: en bolsillos, en fundas de instrumentos, bajo las butacas, en las tribunas altas... Pero la música no aparecía por ningún lado.

Poco después volvieron todos al escenario, apesadumbrados. “Estamos acabados...”, susurró Nikolay Záitsev mirando a los instrumentos inertes. “Tendremos que suspender el concierto...”, anunció el director. Y se hizo el silencio otra vez.

De pronto, empezaron a llegar unos golpes juguetones de detrás del telón: tap-tap-tap... “¿Oís eso?”, preguntó el director. Dio la vuelta al telón y descubrió a una bailarina del ballet haciendo ejercicios de calentamiento; saltos rítmicos, movimientos de tutú, respiración... “¡La música es el cuerpo de Odile!”, gritó asombrada la arpista; y comenzó a tararear el fragmento representado por el cisne negro. Ahí estaba la música; en el cuerpo de Odile, en los labios de la arpista, en el corazón de Nikolay Záitsev, en las manos de Chaikovsky, en las entrañas de Alma Mahler, en la mente de Marianne Mozart, en la piel de Clara Schumann, en los ojos de Fanny Mendelssohn, en mí, en ti...

Miren Amuriza

---